

ZINEMA. Coppola baino fidelagoa izan dela Stockerren pertsonaiarekiko dio zuzendariak

Francok Drakula eta Killer Barbies taldea bildu ditu bere film berrian

Zinemagilearen filma gaur estreinatuko dute Donostiako Beldurrezko Astean

Efe | DONOSTIA

Jesus Franco zuzendari madrildarraren *Killer Barbies contra Dracula* estreinatuko dute gaur, Donostian, Fantasiatzko eta Beldurrezko 13. Astearen baitan. Franco Gipuzkoako hiriburuan izan zen atzo lan berria aurkezten, eta filmak beldurra, musika eta fartsa nahasten dituela azpimarratu zuen. Halaber, Bram Stocker idazleak sortutako pertsonaiarekiko Coppola bera baino fidelagoa izan dela bera nabarmendu zuen.

«Benetako gaiztoa da nire Drakula; bere helburu bakarra gaizto izatea da, gaizto izatea delako bere funtsa. Coppolarenak, maitemintzen denean, sen hori galtzen du, eta, ondorioz, nirea Stockerrek sortutakoarengandik hurbilago dagoela uste dut, nahiz eta hori esateagatik errotat hartuko nauten», bota zuen Francok Donostian egindako agerraldian.

Ez da lehenengo aldia Jesus Francok *Killer Barbies* musika taldearekin lan egiten duena; oraingoan, gaur estreinatuko den filmean, Lina Romay —zuzendariaren emaztea— eta *Killer Barbies* taldeko kideak dira protagonista nagusiak. Drakularen rola Kike Sarasola aktoreak betetzen du. Francoren film berrian *Killer Barbies*en kontzertu batean agertzen da momnia bilakatutako Drakula; esnatu eta berehala hasten dira bere haginkadak.

Hirugarren proiektu bat egiteko aukera ere ez du baztertu Francok, baina oraingo ez du egiten, ez baitu «istorio bera errepikatu» nahi. Bada, hala ere, musika taldeko kideak eta

GAURKO EGITARAUA

17:00: Pszichoparade (Ferenc Cako, Hungaria), Zu warriors (Tsui Hark, Txina-Hong Kong), The gordon (Terence Fisher, Erresuma Batua), Killer Barbies vs. Dracula (Jesus Franco, Espainia). Antzoki Zaharrean.

17:30: The pit and the pendulum (Roger Corman, AEB). Principe aretoan.

19:45: Nosferatu, banpiroa (Friedrich Wilhelm Murnau, Alemania). Principe 2 aretoan. Musika zuzenean: Josetxo Fernandez de Ortega.

22:30: Der student von Prag (Henrik Galeen, Alemania). Principe aretoan.

23:00: Quatermass and the pit (Roy Ward Baker). DVD emanaldia. Principe aretoan.

24:00: Der Schlangemann (Bjorn Renberg-Andreas Hansson, Suedia). Ondoren, pelikula sorpresa. Antzoki Zaharrean.

Frankenstein aurrez aurre jar-zeko proiektu bat.

Ikusleak dibertitu

Malagako parke batean filmatu zuen Jesus Francok gaur estreinatuko duen filma, euskarri digitala. Lan egiteko modu horren alde agertu zen, sutsu, atzoko agerraldian, eta zinema digitala «etorkizuna» dela azpimarratu zuen.

72 urtekin, lanean jarraitzeko indarrak soberan ditu Jesus Francok. Beldurrezko zinemaren esparruan zuzendari ezaguna da madrildarra; *Gritos en la noche*, *Miss muerte* edo *Dracula contra Frankenstein* filmak egin ditu, besteak beste.

Bere lanen bidez «ikusleak dibertitu besterik ez» duela nahi azpimarratu zuen Francok Donostian. «Gehiengo osoak ez zaizkit interesatzen; gutxiengo adimendu bat dibertitzea da nire asmoa».



JUAN HERRERO / EFE

Jesus Franco zuzendaria, atzo, Donostian.

PLANO SUBJEKTIBOA ■ Koldo Almandoz

Nosferatu 'Joola' itsasontzian

Beldurrezko asteko programari begira geundela, lagun batek zera esan zidan.

—Begira, nire bizitzako lehendabiziko mutil-laguna.

Argazkiari erreparatu, eta Nosferaturen argazkia seinalatzen ari zela ikusi nuen. Nosferatu: iluntasunik beltzenean ere itzala proiektatzen duen izakia. Lagunak erakutsitako fotogramen, Nosferaturen atzean sokaz eginiko eskailerak azaltzen dira. Belaontzi zaharrek izaten zituzten eskailerak. Nosferatuk itsasoa maite zuela gogoratzen dut. Eta bat-batean, duela hila-bete eskas jasotako mezu elektroniko bat etorri zait burura.

Bai. Arraroa da. Baina gure garunaren tolesturek lotura bereziak egiten dituzte. Bat-batean, Erretereriako Mikelazuloko jendeak bidalitako mezuaz oroitu nintzen. Mezu hartan, duela gutxi Senegalgo itsasoan urperatu zen *Joola* itsasontziaren inguruko hainbat hausnarketa agertzen ziren. Mila pertsona ingururen ondoratzeak eta gerora gertakizun hark izan duen jarraipen mediatiko eskasak beste behin frogatu du honezkero guztiok dakiguna. Mezuak zioen moduan, ziurrenik ez dugu ikusiko TITANIC afrikar honen historia zinean. Eta ez dugu ikusiko, beltzez beteta zegoelako. Bai. Beltzak. Guretzat izenik eta izanik ez duten beltzak. Eguzkipean ere itzalik ez duten beltzak. Amerikako Estatu Batuetako eskola umeak izan balira, honezkero, ikastoletan, amerikarren ereserkia kantatuko zuketuen gure haurrek elkartasun ekintza gisa. Eta ez naiz ari handizkatzen. Sabino Arana sariaz gain, gure gaztarik onena New Yorkeko suhiltzaileei eman genielako... Sabino Arana saria bale, baina gure gaztarik onena, aizue...

Honek guztiak ez du Beldurrezko Astearekin zerikusi handirik. Edo agian bai. Nosferatu. Itsasontziak. *Joola*. Iluntasuna. Beltzak. Fikzioa eta errealtatea. Garuneko tolesturetan lotura bereziak sortzen dira...

LAGURAEAN

MUSIKA

Zambra Dance Club zabalduko dute larunbatean Lesakako areto berrian

Lesakako Zambra aretoak Zambra Dance Club espazio berria inauguratuko du larunbatean, 23:00etatik aurrera egiten duen bestarekin. Proposamen berri horren bidez, musika elektronikoaren esparruan erreferentzia izan nahi du Zambrak. Inaugurazio bestarako, Alemaniako bi DJ ekarriko ditu Zambrak: Heiko Laux eta Alexander Kowalski.

BOSek Steven Isserlis izango du gonbidatu gaur eta bihar

Steven Isserlis biolontxelo jotzailea lagun, Bilbao Orkestra Sinfonikoak bi kontzertu eskainiko ditu Euskalduna jauregian. Musikari aski ezaguna da Isserlis, bai mundu osoan eskaini dituen kontzertuengatik, bai hezkuntza mailan eman dituen klase eta argitalpenengatik. BOSein batera, Isserlisek Txaiikovski eta Shostakovitxen piezak joko ditu. Emanaldiak gaur eta bihar izango dira, 20:30etatik aurrera.

ARTEA

Annegret Hobergen hitzaldia jasoko du Guggenheim museoak

Kandinski bere testuinguruan erakusketaren harira, Bilboko Guggenheim museoak Annegret Hobergen hitzaldia jasoko du gaur, arratsaldeko 19:30ean. *Vassili Kandinski Munich eta Murnau 1896-1914* izenburupean, Hobergenek Der blaue reiter taldeko kide izan zenaren urte artistiko oparoenak aztertuko ditu. Hoberg arte historialaria da, eta 1987tik Municheko Lenbachhaus galeriako Administrazio Kontseiluko kide da.

ANTZERKIA

Gaiarre Laguna izeneko txartela aurkeztu du antzokiko fundazioak

Iruñeko Gaiarre Antzokia Udal Fundazioak Gaiarre Laguna izeneko txartela aurkeztu du. 30 euroren truk eskura daiteke, eta, hari esker, puntuak pilatu eta hainbat ikuskizunetarako sarrerak lortu ahal izanzen dituzte txartelen jabeek. Horretaz gain, informazioa eskuratu eta sarrerak merkeago jaso ahal izanzen dituzte.

IRAGARKI MERKEAK @ 943 300 222

**Lizartzako
ostatuan
langilea
behar da**

ASTEARTETIK IGANDERA

☎ 943 68 22 56

**33 x 33 mm
MODULOA
(Edizio orokorra)**

Eguna: **19 €**
Astea (6 egun): **15 €**
2 aste (12 egun): **13 €**
Hilabetea (24 egun): **9 €**